

Gipuzkoako Batzar Nagusien Osaerarako Osoko Bilkura

Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariaren hitzaldia

Eider Mendoza Larrañaga

Donostian, 2015eko ekainaren 12an

Batzar Nagusiak ofizialki eratutzat ematen ditut.

Diputatu Nagusi jauna,

foru diputatuak,

batzarkideak,

gonbidatuak,

Egun on guztioi:

Lehenik, eskerrak ematen hasiko naiz:

Batzarkideoi, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mahai-buru izendatzeko nigan izan duzuen konfiantza eskertu nahi dizuet. Zuetariko bakoitzari.

Nire aurretik ardura honetan aritu diren zortzi Mahai-buruei, eskerrik asko egindako lanagatik, eta bereziki, gaurkoan, Lohitzune Txarola andereari. Lau urte hauetan zehar, zintzo egin dugu lan elkarrekin, konfiantza giro batean, gure lanak eskatzen zuen bezela.

Alderdikoei: Joseba, Markel, Bakartxo, Jon, Eneko, Carlos, Imanol, Xabier, Maite, Idoia... eta Gipuzkoako batzoki guztietako afiliatuei, zahar eta gazte, emakume eta gizon, esker mila: zuen konfiantzagatik, eta batipat, egindako lanagatik.

Etxekoei: ama, aita, Mateo... urte guzti hauetan zehar zuek irakatsitakoa, makal ibili naizen aldiro eman didazuen indarra, eta nigan daukazuen konfiantza haundia, eskertu nahi dizkizuet. Benetan izan dira lagungarri.

Bigarrenik, zorionak,

Mahaikide berriei:

- EH Bilduko Merino jaunari
- Talde Sozialistako Astudillo jaunari

- Podemoseko Cisneros andereari
- EAJko Ezeizabarrena jaunari

Batzarkide guztioi.

Hamargarren legealdiari hasiera eman diogu gaurkoan eta hainbat erronka ditugu.

Krisialditik behingoz atera beharra daukagu, eta indartuta. Sei urteko krisialdiak ondorio latzak izan ditu Euskadin eta Gipuzkoan, eta ezinbestekoa da beraz erakunde publikoak ehun produktiboari, ekonomiari, laguntzea; enplegua sortzeko, hori baita une honetan gipuzkoarren lehentasuna eta kezka nagusia.

Herri bezela aurrera egin behar dugu, inor baztertu gabe, pertsona guztien eskubide guztiak bermatuta. Horretan datza hain zuzen ere guztion artean eraiki dugun euskal ongizate sistemak. Aurrera egin behar dugu justizia soziala abiapuntu delarik. Alegia, ekonomiaren hazkuntza, betiere, justizia sozialaz lagunduta.

Eskubide politiko, zibil, ekonomiko eta sozialek oinarri izan behar dute politikagintzan aritzeko, Herria eraikitzeko. Oinarrizko eskubide horiek kontuan hartuta eraiki behar dira egitasmo politikoak, bai pertsonentzako, eta baita Herrirentzako ere.

Izan ere, sistema baten demokrazia-izaera bermatzeko beharrezkoa da, sistemak berak irizpide horiek, eskubide horiek, kontuan izatea eta barneratuak izatea. Horrenbestez, eskubide eta irizpide horiek ez dira urratuko.

Hori dela eta, hainbat hamarkadatan izandako bortizkeria, giza-eskubideen urraketa eta liskarren ondoren, elkarbizitza berreskuratzea lehenetsi beharra daukagu: errespetuan, elkarrekiko onarpenean, eta printzipio goren gisa, gizakiaren duintasunarekiko konpromisoan oinarritutako elkarbizitza. Eta, hori da legealdiaren helburu nagusienetako bat: bakea eta elkarbizitza sendotzea, eta oinarri sendoak ezartzea, etorkizunean elkarbizitza baketsua bermatzeko.

Eta, era berean, Herri bezela garatzen eta aurrera egiten jarraitu nahi dugu. Herri bat gara, nazio bat gara, eta gure etorkizuna modu aske eta demokratiko batean erabaki nahi dugu.

Horiek dira, beraz, legealdi honetan ditugun erronkak. Herritarren nahia ondo ulertzeko gai izan behar dugu eta eskari horiei erantzun egokia eman behar diegu.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak dira Gipuzkoako herriaren parte-hartzearen eta ordezkartzaren organo gorena. Hemen dago Gipuzkoako herriaren burujabetza. Eta gu guztiok gara herriaren burujabetza horren ordezkariak. Eta, beraz, ordezkariak garenez, gipuzkoarren beharrei erantzuteko eskubidea eta betebeharra dugu. Eta hemen erabakitzen duguna errespetatu behar da.

Hori lortzeko gure tresna, hitza dugu. Hitza, adostasunak lortzeko. Ahalik eta akordio zabalenak, arazoei irtenbideak emateko garaian, guztion parte-hartzea

ahalbideratuko duten akordioak. Zenbat eta zabalagoak izan hobe, beto eskubiderik gabe.

Elkarrizketak izan behar du tresna, aurrera egin ahal izateko adostasunak lortzeko, Gipuzkoak aurrera egin dezan. Elkarrizketa, betiere, aurkari politikoa errespetatuz, eta, batez ere, herritarrekin hartutako konpromisoak errespetatuz.

Eta hori guztia, gipuzkoarrekin zuzeneko harremana landuz. Harreman horri esker, gipuzkoarren beharrak zuzenean ezagutzeko aukera izango dugu, horiei erantzuna eman, horrenbestez, gipuzkoarrek erakundeenganako duten konfiantza ere sendotu.

Ziur nago, guztion artean egiteko gai izango garela.

Duela lau urte, legealdia hasi eta hilabete gutxira, aro berria ireki zen gure Herrian. ETAren bortizkeriaren desagertzeak beste aro itxaropentsu bati hasiera eman zion. Egun, itxaropenak dihardu. Espero dut bakea eta elkarbizitza sendotzeko legealdia izatea hau; ekonomia sendotzeko eta krisiari aurre egiteko legealdia izatea; langabeziaren amaieraren legealdia izatea; gure Herriaren garapena sendotzeko legealdia izatea. Hau da, gizon-emakumeen eta Herriaren eskubide politiko, zibil, ekonomiko eta sozialak sendotzeko legealdia izatea.

Eta hori guztia lortzeko, zuekin guztiekin elkarlanean aritu nahi dut. Izan ere, guztiok gara beharrezkoak helburu horiek lortzeko. Herritarrak zain ditugu. Apal eta zintzo aldamenean izango nauzue.

Eskerrik asko.

Eta azkenik, bateraezintasunen batzordeko osoko bilkuraren deialdia egiten dut.